

## Aiara

### Emozio kudeaketa dinamikak Zaraobe Institutuan

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo

Institutuko Lanbide Heziketa-ko ikasleak jarrera eta emozioen arloan trebatzen ari dira. Proiektua ikaslea bere osotasunean hartzean datza, ezagupen teknikoak bakarrik ez, horrelako trebetasunak ere behar dituelako. Iñaki Rodrigo, proiektu-arduradunaren esanetan, emozioak kudeatzeko duten gaitasun ezari erreparatzea eta horrek ekartzen dizkigun arazoek kontzientziaztea da helburua.

Egitasmoa joan zen ikasturtean jarritzuten abian, irakasle batek adimen emozionalarekin lotutako nazioarteko programa batean parte hartu eta esperientzia desberdinak ezagutzeko aukera izan zuenean. Zaraobe Institutuan ikasleekin harremanetan jartzeko tresnak moldatzen hasi ziren orduan, gertukoagoak bihurtzen. Ikasturte honetan urrats berria eman dute: heziketa emozionala gainontzeko irakasgaietan txertatu eta hainbat dinamika abiarazi dituzte, "Sintonizatzeako minutua", "Kariñogramak" eta "Sentimendu panela", besteak beste.

#### Askotariko harrera

Ikasleen artean oso harrera ona izan dute, adibidez, ikastetxera sartu bezain laster musika lasala entzun eta burua "sintonizatzeako" edo ikasketarako prestatzeko minutuek. Batzuk bere falta sumatu dute aukera hori izan ez dutenean. Beste dinamika batzuk, ordea, harrera okerragoa izan dute. Irakasleen funtzioa are garrantzitsuagoa da proiektuak aurrera egin dezan.

Egitasmoan parte hartzeko formazioa jaso eta oro har ondo hartu dute, "baina irakasle batzuentzat ere zaila da emozioekin lotutako tresna berri hauek haien eguneroko dinamiketan integratzea".

Ikastetxeak ildo honetan jarraitzeko asmoa du, dinamikak moldatuz eta bidean ikasten ari diren guztia proiektua hobetzeko erabiliz. Momentuz ikaskuntza emozionala Lanbide Heziketako ikasle taldeetan eskaintzen da bakarrik baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako taldeetara ere zabaltzeko asmoa dute.

Zaraobe Institutuak metodologია aktiboa eta proiektuetan oinarritutako irakaskuntzaren bidea hartu du. Ikasleekin harreman zintzoak izateko nahia eta haiekin batera gauza berriak eraikitze asmoa daude bide horren atzean.

### Zabor tasak igo egin dituzte, konbergentziara bidean

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Zabor tasen igoera onartu egin da Aiarako Udalean. Orain arte urtean herritar bakoitzak 14 euro ordaintzen zituen zaborrak jasotzeko zerbitzuagatik. Orain, kopuru hori 21 euroa igo da; hau da, urtean 7 euro gehiago.

Zerga igoztearen proposamena Bildurena izan da, eta "filosofia batekin" egin dela adierazi du Josu Artetxe Aiarako alkateak. "Europatik datorren araudiak zaborren zerbitzua tasen bidez ordaintzea eskatzen du", azaldu du.

Igoera Aiaraldeko gainontzeko herriein zaborren zerbitzuaren harira konbergentzia bat lortzeko asmoz egin dela azaldu du Artetxek eta Aiarako tasa "oso txikia" zela, "normalean 40 eurotik gorakoak izaten dira".

Horregatik, beste herriein konbergentzia lortzeko tasak igo behar direla ondorioztatu du alkateak, gobernu-taldea ezarritako parametroekin oso ados ez dagoen arren. Alde horretatik, parametro horiek ikertzeko eta hobekuntzak egiteko atea zabalik jarraitzen duela ziurtatu du Artetxek.

Hala ere, igoera sinbolikoa dela gaineratu du alkateak. "Igoera ehunekotan neurituta agian handia dirudi, baina ehuneko horren oinarria txikia da".

Hala ere, eztabaida ugari sortu ditu igoerak. "Adostasunak ez dira errazak izan", aitortu du Artetxek. Alkateak azaldu du hiru ingurumen batzorde egin dituztela talde politikoaren artean gaiaren inguruan eztabaidatzeko. Azkenean Bildu eta Aiarra Batuz-en aldeko bozekin onartu da igoera.

Hala ere, etorkizunean zaborren tasaren inguruan eztabaida gehiago egongo direla aurreikusi du alkateak, asmoa ez delako soilik tasa igozea, "parametro batzuen baitan" igozea baizik. Eraikinen notakotasunaren arabera tasa ezberdinak adostea izango litzateke hurrengo pausoa.

#### Burgosekin eztabaida

Beste aldetik, abeltzainen harira Burgosekin izandako eztabaidak aurrera jarraitzen du. Burgosek muga ixtea erabaki zuen, Aiaratik sartzen ziren abeltzainek bertako larreen gehiegizko erabilera egiten zutela argudiatuta. Honen harira Artetxek adierazi du Burgosekin igoera konpontzeko negoziatzen ari direla.